

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO LANPOSTU HAU BETETZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK: ISURKETA ARLOKO ARDURADUNA.

LEHENENGO OINARRIA. - DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen xedea da ISURKETA ARLOKO ARDURADUNAREN lanpostua betetzeko prozedura arautzea; lanpostu hori betetzen duena lan-kontratadun langile finkoa izango da URAREN EUSKAL AGENTZIAN –Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren zuzenbide pribatuko erakunde publikoa–, eta hemen emango ditu zerbitzuak: Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Intxaurren kalea 70, 1. solairua, 20015 Donostia).

Deialdiaren xede den lanpostua behin betiko beteko da, lanaldi osoz, arloko arduradunaren kategorian; urteko soldata gordina 55.550,46 euro izango da.

Halaber, lan-poltsa bat osatuko da ISURKETA ARLOKO ARDURADUNAREN lanposturako, lan-poltsako kideek aldi baterako zerbitzuak eman ditzaten Uraren Euskal Agentziak EAEko hiru hiriburuetan dituen lanlekuetan, oinarri hauetan zehazten den moduan.

Prozedura honi urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52., 53. 54. 55. eta 59. artikulua aplikatuko zaizkio (xedapen horrek Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu batekina onartu zuen).

Deialdia EHAAn argitaratuko da, eta oinarriak Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) eskuratu daitezke.

LANPOSTUAREN XEDE OROKORRA

Ardurapean duen lantaldeari esleituriko isurketa arloko espedienteak koordinatzea, kontrolatzea eta jarraitzea; epeei eta formari dagokienez behar bezala izapidetzen direla ziurtatzea; dagokion eremu geografikoan isurketen ur-araudia betetzen dela egiaztatzea, eta Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzari laguntzea isurketa-baimenen gidalerroak ezartzen.

EGINKIZUN OROKORRAK

EGINKIZUN OROKORRAK

- Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzari laguntzea isurketa-baimenen arloan.
- Isurketa-baimenen gidalerroak prestatzeko lanetan parte hartzea.
- Isurketa-baimenei buruzko espedienteen kudeaketa gainbegiratzea eta izapidetze- eta jarraipen-lanak gainbegiratzea.
- Isurketei dagokienez, dagokion eremu geografikoan ur-araudia betetzen dela egiaztatzea.
- Ardurapean duen kudeaketa-atalaren jardura antolatzea eta planifikatzea.

BIGARREN OINARRIA. - IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

A) BALDINTZA OROKORRAK

- a) Nazionalitatea: Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarra izatea.
- b) Adina: hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez izatea.
- c) Gaitasun funtzionala: ez izatea gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik, eginkizunak betetzea eragotziko duenik.
- d) Gaikuntza: ez egotea bereiztuta diziplinazko espediente baten bidez administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutupekoen zerbitzutik, eta ez izatea ezarrita ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikorako erabateko desgaikuntzarik edo desgaikuntza berezirik. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, izangaiak ezingo du desgaituta egon, ez eta egoera baliokidean egon ere, eta ezingo du ezarrita izan diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik, zeinaren bidez, baldintza beretan, enplegu publikorako sarbidea eragozten zaion jatorriko estatuan.
- e) Aurrekari penalak: izangaiak ezingo du izan ondarearen, ordena sozioekonomikoaren, herri-ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako dolozko delituen ondoriozko aurrekari penal ez-ezerezturik, edo ezereztu ezin daitekeenik, eta ezingo du izan kargua eteteko edo kargutik kentzeko administrazio-ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehazpenik, apirilaren 28ko 10/2010 Legea urratu izanaren ondorioz (Kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretuaren 40. artikulua).

Baldintza orokorrak baztertzailleak izango dira, kasu guztietan.

B) BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

- a) Titulazioa:
 - INGURUMEN-ZIENTZIETAKO LIZENTZIA
 - INGENIARITZA KIMIKOA
 - MENDI-INGENIARITZA
 - INGENIARITZA INDUSTRIALA
 - BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARITZA
 - INGENIARITZA AGRONOMOA
 - KIMIKAKO LIZENTZIA
 - GEOLOGIAKO LIZENTZIA
 - BIOLOGIAKO LIZENTZIA
 - MEATZE-INGENIARITZA
 - ITSAS ZIENTZIETAKO LIZENTZIA
 - ANTOLAMENDU INDUSTRIALEKO INGENIARITZA

INGENIARITZA INDUSTRIALA; ANTOLAMENDU-
ESPEZIALITATEA
HERRI-LANETAKO INGENIARITZA TEKNIKOA
INGENIARITZA TEKNIKO INDUSTRIALA
NEKAZARITZAKO INGENIARITZA TEKNIKOA
BASOGINTZAKO INGENIARITZA TEKNIKOA
INGENIARITZA TEKNIKO KIMIKOA
TOPOGRAFIAKO INGENIARITZA TEKNIKOA

Titulazioa atzerrian eskuratu duten izangaiek egiaztatu beharko badutela baliozkotze-agiria edo, hala badagokio, homologazioaren ziurtagiria.

Azken baldintza hori ez zaie aplikatuko araututako lanbideen eremuko lanbide-kualifikazioa Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenekin bat aitortua dutenei. Izangaiei betebeharra da aitortpen hori egiaztatzea.

b) Gidabaimena: B

Baldintza espezifikoa baztertzailak izango dira, kasu guztietan.

Honako hauek baloratuko dira proba edo egiaztatze bidez:

- c) Esperientzia izatea jabari publiko hidraulikora egiten diren isurketetarako baimenen arloan.
- d) Ezagutza orokorrak izatea isurketa-baimenei eta aplikatzekoa den araudiari buruz.
- e) Ezagutzak izatea uraren eta kontratazio publikoaren arloei buruz.
- f) Lidergorako, antolamendurako eta plangintzarako gaitasuna izatea.
- g) Euskara eta beste hizkuntza batzuk jakitea.

HIRUGARREN OINARRIA. - ESKAERAK AURKEZTEA

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak web-orri honen bidez SOILIK aurkeztuko dira: www.campo-ochandiano.com

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, honako hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta 2019ko uztailaren 2an amaituko da.

Izangaiek beren **hautagaitza erregistratu eta curriculum bidali behar dute**; horretarako, hautaketa-enpresaren web-orriara jo (www.campo-ochandiano.com) eta **5567 erreferentzia** duen eskaintzari erantzun behar diote.

Orobat, dokumentu **hauek bidali behar dituzte** 5567uragentzia@campo-ochandiano.com helbide elektronikora:

1. "1. dokumentua. Eskatera": eskaera-orria, zeinean izangaiak adieraziko baitu betetzen dituela deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak (*eskaera-eredua hautaketa-enpresaren web-orriko Ur Agentziaren webgunean dago, lan-eskaintzen atalean*).
2. Curriculumama.
3. NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
4. Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulu ofizialaren kopia.
5. Eskatu den gidabaimenaren kopia.
6. % 33ko edo hortik gorako desgaitasunaren ziurtagiria (halakorik izanez gero).

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 2(e)ko 12:00etan amaituko da. Eskatera aurkezteak esan nahi du berariaz onartzen direla deialdi honen oinarriak.

LAUGARREN OINARRIA. - ESKAERAK EGIAZTATZEA

Zuzentzeko modukoak diren hutsak zuzentzeko, hamar egun balioduneko epea egongo da, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Interesdunek mezu bat jasoko dute posta elektronikoko helbidean –aholkularitza-enpresaren web-orrian erregistratzeko erabili zuten hartan–, zeinaren bidez jakingo baitute izangaietatik zein baztertu diren behin betiko parte hartzeko baldintzak ez betetzeagatik, eta zein izan den arrazoia.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda URAREN web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta hautaketa-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da.

BOSGARREN OINARRIA. - HAUTAKETA-PROZEDURA

Fase hauek izango ditu hautaketa-prozedurak:

1. FASEA. PROBAK

Uraren Euskal Agentziaren web-orrian eta hautaketa-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da probak noiz, non eta zer ordutan egingo diren. Lehenengo faseko proba teorikoak eta/edo praktikoak egun berean egingo dira.

1.A. FASEA

- a) Bigarren eranskineko gai-zerrendan jasotako arloei buruzko testa. Gehienez 25 pertsona igaroko dira 1B fasera; hain zuzen ere, testaren gehieneko puntuazioaren erdia edo hortik gora lortu dutenen artetik puntuazio altuena izan

duten hogeita bostak. Berdinketa gertatuz gero, puntuazio bera duten izangai guztiak igaroko dira hurrengo fasera.

1.B. FASEA

- b) Jabari publiko hidraulikora egiten diren isurketetarako baimenei buruzko ezagutza-proba.

Gehienez 20 pertsona igaroko dira 2. FASEra; hain zuzen ere, 1. FASEan puntuazio altuena lortu duten hogeia –1A eta 1B faseak batuko dira; 1A FASEko galdetegian eta 1B FASEko ezagutza-proban gehieneko puntuazioaren erdia edo hortik gora lortu behar da. Berdinketa gertatuz gero, puntuazio bera duten izangai guztiak igaroko dira hurrengo fasera.

2. FASEA

- a) Konpetentziei buruzko elkarrizketa: curriculum-elkarrizketa izango da, zeinean lanposturako behar diren konpetentzia teknikoak, orokorrak, zeharkakoak eta jarrerakoak baloratuko baitira. Kanpoko aholkularitza-enpresak egingo du elkarrizketa, 1. faseko proba guztiak zuzenduta daudenean.
- b) Nortasun-testa: nortasun-testaren bidez lortutako informazioa elkarrizketa osatzeko erabiliko da.
- c) Merezimenduak balioezteko/puntuatzeko egiaztagiria entregatzea:
 - a. Esperientzia: lan-bizitzaren agiriaren bidez edo dagokion administrazio publikoaren zerbitzu- eta eginkizun-ziurtagiriaren bidez justifikatuta dagoen esperientzia soilik baloratuko da.
 - b. Deialdiaren xede den lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen prestakuntza espezifikoaren titulua. Unibertsitate-titulu ofizialak baino ez dira entregatuko.
 - c. Beste hizkuntza batzuen jakintza egiaztatzea.

2. FASEko probak egiteko proposatzen den egunean entregatu behar dira merezimendu-faseko egiaztagiria. Aurrealdea eta atzealdea agertuko dira kopietan.

Egiaztagirien egite-datak nahitaez izan beharko du eskaerak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa.

3. FASEA

Merezimenduak eta euskara baloratuko dira fase honetan.

1. eta 2. faseak batuta puntu gehien lortu duten 15 pertsonak igaroko dira 3. fasera. Berdinketa gertatuz gero, puntuazio bera duten izangai guztiak igaroko dira hurrengo fasera.

4. FASEA

1., 2. eta 3. faseak batuta puntu gehien lortu duten 5 pertsonak elkarrizketatuko dira. Berdinketa gertatuz gero, puntuazio bera duten izangai guztiak igaroko dira hurrengo fasera.

Helburua da izangaiak ebaluatzea, jakiteko bete nahi den lanpostuan aritzeko kompetentzia profesionalak dituen, taldean lan egiteko eta ongi komunikatzeko gai den eta aldaketen aurrean ongi erantzuten duen.

Hautaketa-enpresak txosten bat idatziko du emaitzak biltzeko; ondoren, Epaimahaiak emaitzak onartutakoan, akta egingo da, zeinean adieraziko baita zein izangaik lortu dituen puntu gehien 1., 2., 3. eta 4. faseetan eta zein diren, puntuazio-hurrenkeraren arabera, haren atzetik behin betiko geratu diren 14 pertsonak. Zerrenda horretako izangaiak Isurketa arloko arduradunaren lan-poltsan sartuko dira. Lan-poltsak 5 urteko indarraldia izango du argitaratzen den egunetik, non eta ez den plaza horretarako beste lan-poltsarik osatzen lehenago; hala gertatuz gero, zaharra kendu eta berria erabiliko da.

Uraren Euskal Agentziaren eta hautaketa-enpresaren web-orrietan argitaratuko da zerrenda, izangaien NANaren laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren posizioekin argitaratu ere.

SEIGARREN OINARRIA. - KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozedura.

Kalifikazio Epaimahaia nagusiki teknikoa izango da, eta, hura osatzeko, aintzat hartuko dira espezialitate-, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna. Honako hauetan xedatutakoa kasu guztietan beteko da: Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikulua (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina) eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikulua.

Kalifikazio Epaimahaiak kide kopuru bakoitia izango du; horietako bat epaimahaiburu izango da, eta besteak epaimahaikide. Kideetako bat idazkari izendatuko da. Epaimahaia osatzen duten guztiek ordezkoa izango dute.

Izendapenak egiteko garaian, kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatuko dira.

Epaimahaiak erabaki dezake aholkulari espezialistak hartzea hautaketa-prozesuko proba bateko edo batzuetako lanetarako. Aholkulari espezialista horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren lan bakarra izango da epaimahaiari laguntzea espezialitate teknikoetan.

ZAZPIGARREN OINARRIA. - IZANGAIA AUKERATZEA ETA LAN-POLTSA ERATZEA.

Hautaprobak amaitutakoan, Kalifikazio Epaimahaiak guztizko puntuaziorik altuena duen izangaia kontratatzeko proposamena egingo du –guztizko puntuazioa fase bakoitzean lortutako puntuen batura izango da–.

Horretaz gainera, Epaimahaiak, aldi baterako beharrak estaltzeko lan-poltsa bat eratze aldera, zerrenda bat osatzeko proposamena egingo du, zeinean jasoko baitira guztizko puntuazio altuena duten 14 pertsonak –fase bakoitzean lortutako puntuak batuko dira horretarako–.

Berdinketa gertatuz gero, eta izangaiek gaitasun berberak badituzte, emakumeei lehentasuna emango zaie maila eta kategoria jakin batzuetan –hain zuzen ere, emakumeen ordezkartza % 40tik beherakoa denetan–, salbu eta beste izangai batek neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu –ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko diskriminaziorik–, hala nola laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea–. Hori guztia, bat etorri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen IV. kapituluko 20.4.a) artikuluekin.

Behin guztizko puntuazio altuena duen izangaia hautatu denean, lan-poltsa osatuko da, zeinean lehentasuna izango baitute prozesuko fase guztiak gaintitu eta gutxienez % 33ko desgaitasuna dutela egiaztatzen duten izangaiek. Merezimenduak baloratzeko fasean lortutako puntuak 1,3 zenbatuko dira; hau da, lortutako balio errearen % 30 gehiago. Horretarako, nahitaezkoa izango da dagozkion ziurtagiriak aurkeztea.

1., 2., 3. eta 4. faseetan berdinketa gertatzen bada, Epaimahaiak erabaki dezake, beharrezkoa irizten badio, beste proba bat egitea, izangai egokiena hautatze aldera.

ZORTZIGARREN OINARRIA. - HAUTAPROBAK AMAITUTAKOAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Interesdunei jakinaraziko zaie zer izangai hautatu diren, eta pertsona horiek Uraren Euskal Agentzian aurkeztu beharko dituzte 2. oinarrian jasota dauden parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak, kontratua sinatu baino 10 egun natural lehenago. Horretarako, honako hauen jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak eman behar dituzte:

- Curriculumean adierazitako prestakuntza akademikoa egiaztatzen duten titulu, ziurtagiri edo diplomen kopia autentifikatua, edo halakoak eskuratzeko tasak ordaindu izanaren frogagiria.

Atzerriko tituluak dituzten izangaiek baliozkotzearen edo homologazioaren egiaztigiriak aurkeztu beharko dituzte.

Araututako lanbideen eremuko lanbide-kualifikazioa Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenekin bat aitortua dutenek agiri bidez egiaztatu behar dute egoera hori.

- Hizkuntzen ziurtagiriaren kopia autentifikatua edo fotokopia.

- Lan-bizitzaren agiria, zeinak egiaztatu behar baitu curriculumean adierazitako esperientzia profesionala.

- Zinpeko deklarazioa edo hitzematea, non izangaiak adieraziko baitu ez dagoela diziplinazko espediente baten bidez bereiztuta administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutupekoen zerbitzutik, eta ez duela ezarrita ebazpen judizial baten bidez enplegu edo kargu publikorako erabateko desgaituntzarik edo desgaituntza berezirik. Halaber, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, adierazteko ez daudela nahastuta desgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko ezein kausatan. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esateko beren estatuan ez daudela desgaituta edo egoera baliokide batean eta ez dutela ezarrita enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo neurri baliokiderik.

Betekizun hori egiaztatzeko, eredu normalizatu bat jarriko da izangai hautatuen eskura.

- Esleitutako lanpostuan aritzeko eskatu diren bestelako baldintza espezifikoaren egiaztagiria, hala badagokio.

Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez duten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira, eta Uraren Euskal Agentziak gai kalifikatu den hurrengo izangaia kontratatu ahal izango du, betiere prozeduraren amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz.

Lan-poltsako kideen puntuazio-hurrenkera zein den, ordena horretan deituko zaie.

BEDERATZIGARREN OINARRIA. - DATUEN BABESA

Interesdunari jakinarazten zaio Uraren Euskal Agentziak bere datu pertsonalak tratatuko dituela (**Uraren Euskal Agentzia; Oriu kalea 1-3, 01010 Gasteiz**). "HAUTAKETA-PROZESUAK" tratamenduaren helburua da lanpostuak betetzeko pertsonal-hautaketaren prozedurak egitea, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen arabera (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua). Datuak zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira datuak, bai eta helburu horren ondorioz eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala behartu ezean. Datuetan sartzeko, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta haien tratamendua mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubidea du interesdunak. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du arestian aipatutako helbidera, eta NANaren kopia edo identifikazio-agiri baliokide baten kopia erantsi. Eskubidea du, halaber, Datuen Babesa Kontrolatzeko Agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak datuak babesteko duen ordezkariarekin harremanetan jar daiteke, Gasteizko Donostia kalea 1 helbidera idazki bat bidaliz edo DPD-DBO@euskadi.eus helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz.

Prozeduran parte hartzeko eskaeran, izangaiei esanbidezko adostasuna eskatuko zaie, jakiteko ea onartzen duten beste administrazio publiko batzuei beren datuak lagatzea 10. oinarrian adierazitako ondoreetarako. Datuak lagatzearen helburu bakarra izango da beste administrazio publiko batzuen lan-eskaintzak jasotzea legez ezarritako baldintzetan. Izangaiak ez badu esanbidez baimena ematen, lagatzearen kontra dagoela ulertuko da.

HAMARGARREN OINARRIA. - ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEKO LANKIDETZA.

Uraren Euskal Agentziak, aurreko oinarrian xedatutakoaren arabera, EAEko beste administrazio edo erakunde publiko batzuen esku jar dezake lan-poltsan sartu diren izangaien zerrenda, baldin eta administrazio edo erakunde horiek hala eskatzen badute eta izangaiek 9. oinarrian aipatutako esanbidezko adostasuna eman badute. Edonola ere, eskaerei benetan erantzuteko, bi baldintza hauek kontuan hartuko dira: lan-poltsako kideen prestasuna eta Uraren Euskal Agentziaren pertsonal-beharrak.

I. ERANSKINA. - LANPOSTUA BETETZEKO PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- HELBURUA

Eranskin honen bidez, irizpide orokor batzuk ezartzen dira, arautuko dutenak nola emango diren puntuak, batetik, ISURKETA ARLOKO ARDURADUNAREN lanpostua betetzeko hautaketa-prozesuaren faseetan eta, bestetik, ISURKETA ARLOKO ARDURADUNAREN lanpostuetarako lan-poltsan.

2.- FASEAK ETA FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOAK.

Izangaien balorazioak fase hauek izango ditu:

1. FASEA. Gehieneko puntuazioa: 50 puntu.
2. FASEA. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu.
3. FASEA. Gehieneko puntuazioa: 43 puntu.
4. FASEA. Gehieneko puntuazioa: 7 puntu.

3.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1. FASEA (PROBAK)

Gehieneko puntuazioa: 50 puntu.

1A FASEA

- a) Deialdian zehaztutako gai-zerrendari buruzko ezagutza baloratzeko testa; gehienez ere 20 puntu lor daitezke.

1B FASEA

- b) Isurketa-baimenei buruzko ezagutza-proba; gehienez ere 30 puntu lor daitezke.

2. FASEA (KONPETENTZIEI BURUZKO ELKARRIZKETA)

Gehienez ere 11 puntu lor daitezke fase honetan.

Konpetentziei buruzko elkarrizketa: lan hori egiteko kontratatu den kanpoko aholkularitza-entresak izangaiaren hainbat konpetentzia baloratuko ditu; gehienez ere 11 puntu lor daitezke. Hautagaiak lanpostuan aritzeko behar diren ezaugarriak, trebetasunak eta konpetentziak dituzten ebaluatu eta diskriminatuko da, ñabardurei erreparatuz.

Nortasun-testa: lanpostua ahalik eta ondoen betetzeko behar diren jarrereri buruzko testa izango da. Nortasun-testaren bidez lortutako informazioa elkarrizketa osatzeko erabiliko da. Proba hau berariaz dago diseinatuta lan-jokabide esanguratsuekin zerikusia duten kompetentzia profesionalak neurtzeko.

3. FASEA (MEREZIMENDUAK ETA EUSKARA)

Gehienez ere 43 puntu lor daitezke fase honetan.

3.1. FASEA (MEREZIMENDUAK)

I. ERANSKINEAN jasota dagoen lanpostua behin betiko betetzeko prozeduran, merezimenduak honela baloratuko dira:

1) Egindako lanaren balorazioa: administrazio publikoetan izandako esperientzia profesionala gehienez ere 24 punturekin baloratuko da, baremo honen arabera:

- 0,4 puntu emango dira, jabari publikora egiten diren isurketen eremuko arduradun-plazetan lan egindako hilabete bakoitzeko.
- 0,2 puntu emango dira, jabari publikora egiten diren isurketen eremuko teknikari-plazetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

2) Prestakuntza: unibertsitate-titulu ofizialak gehienez ere 5 punturekin baloratuko dira:

a) Unibertsitate-titulu ofizialak eragin zuzena eta espezifikoa badu deialdiko plazaren eginkizunak betetzeko garaian, gehienez ere 5 punturekin baloratuko da, honela:

- (i) Deialdirako sarbidea eman duen titulua ez den beste titulu ofizial bat bada eta titulazio-baldintza espezifikoetan sartuta badago: 2 puntu, titulu bakoitzeko.
- (ii) Doktoretza: 3 puntu, titulu bakoitzeko.
- (iii) Bestelako unibertsitate-diplomak eta -masterrak.
 - (1) 250 ordu edo gehiagokoak eta 600 ordu baino gutxiagokoak badira: 1,5 puntu, titulu bakoitzeko.
 - (2) 600 ordu edo gehiagokoak badira: 2 puntu, titulu bakoitzeko.

Unibertsitate-ikasketa berbereko hainbat ziklo gainditu izana ziurtatzen duenari horien artetik maila goreneko zikloaren titulua besterik ez zaio baloratuko.

Ez da baloratuko gradu-titulua, baldin eta ikasketa berberen unibertsitate-titulua (diploma edo lizentzia) dutenei zuzendutako egokitzapen-ikastaro baten bidez lortu bada.

3) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakitea gehienez ere 1 punturekin balioetsiko da, baremo honen arabera:

- a) Hizkuntza-eskola ofizialeko B1 maila edo baliokidea, frantsesean, ingelesean edo alemanean: 0,25 puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- b) Hizkuntza-eskola ofizialeko B2 maila edo baliokidea, frantsesean, ingelesean edo alemanean: 0,5 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

c) Hizkuntza-eskola ofizialeko C maila edo baliokidea, frantsesean, ingelesean edo alemanean: 1 puntu, hizkuntza bakoitzeko.

3.2. FASEA (EUSKARA)

Euskararen balorazioa: euskara jakitea nahitaezkoa ez den kasuetan, baremo honen arabera baloratuko dira hizkuntza-eskakizunak:

- (1) 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen bada: 4 puntu.
- (2) 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen bada: 8 puntu.
- (3) 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen bada: 13 puntu.

4. FASEA (URAREN ELKARRIZKETA)

Gehienez ere 7 puntu lor daitezke fase honetan.

Elkarrizketa bat egingo zaio izangaiari, jakiteko bete nahi den lanpostuan aritzeko konpetentzia profesionalak dituen, taldean lan egiteko eta ongi komunikatzeko gai den eta aldaketen aurrean ongi erantzuten duen.

Horretarako izendatuko den Kalifikazio Epaimahaiko kideek egingo dute elkarrizketa.

PUNTUAZIO-LABURPENA

	Irizpidea		Gehieneko puntuazioa:	%
1. fasea	Ezagutza-probak		50	% 45,04
2. fasea	Konpetentziei buruzko elkarrizketa	Campo y Ochandiano	11	% 9,91
3. fasea	Merezimenduak	Esperientzia	24	% 27,03
		Prestakuntza	5	
		Hizkuntzak	1	
	Euskara	Euskara	13	%11,71
4. fasea	Elkarrizketa	URA	7	% 6,31

2. ERANSKINA.- GAI-ZERRENDA

1. Uraren Esparru Zuzentaraua. Ingurumen-helburuak. Ur-masen motak eta karakterizazioa, presioak eta eraginak. Egoera ekologikoa, ahalmen ekologikoa eta ur-masa artifizialak eta oso aldatuak izendatzea. Eremu Babestuen Erregistroa. Demarkazio hidrografikoaren ezaugarriak. Plangintza hidrologikoaren helburu nagusiak. Neurrien programa. Lurpeko urak babesteko zuzentaraua

2. Estatuko Uren Legearen testu bategina eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua. Jabari Publiko Hidraulikoa. Ibilgu, erribera eta bazterrak. Laku, urmael, urtegi eta uholde-arriskuguneak. Plangintza hidrologikoa. Jabari Publiko Hidraulikoa erabiltzea. Jabari Publiko Hidraulikoa eta uren kalitatea babestea. Isurketak jabari publiko hidraulikora. Itsasoko isurketak. Jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko ekonomia-finantza araubidea. Arau-haustek eta zehapenak.

3. Estatuko arau-esparrua, itsasertzari dagokionez. Itsaso eta Lehorraren arteko jabari publikoa erabiltzea eta erabilerak igarobidearen eta babesteko zortasun-eremuetan. Xedapen Orokorrak. Lehorretik itsasora egiten diren isurketak. Arau-haustek eta zehapenak.

4. Euskal Herriko Araudia. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena. 25/2015 dekretua, martxoaren 10ekoa, Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituena.

5. 91/271 Zuzentaraua, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa eta 11/1995 Legegintzako Errege Dekretua, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatu dakizkiokeen arauak ezartzen dituena.

6. 459/2013 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzkoa.

7. Plangintza-eremuak EAEn. Demarkazio Hidrografikoak. Garrantzizko Gaien Eskema. Ondorioak. Ebatzi beharreko arazo nagusiak: neurrien programaren ildo orientagarriak.

8. Kantauri Ekialdeko eta Mendebaldeko demarkazioaren Plan Hidrologikoen araudia.

9. Ebroko Plan Hidrologikoaren araudia.

10. Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra

11. Isurketak jabari publiko hidraulikora. Isurketa-baimena: prozedura, baldintzak, ebazpena, berrikuspena eta deuseztatzea. Lurpeko uretara egiten diren isurketen zehazpenak. Baimendutako isurketen erroldak. Isurketak kontrolatzeko prozedura. Ur-laginak hartzeko arauak. Administrazio publiko ezberdinen eskumenak.

12. Administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaileak. Araudi arautzailea. UNE-EN ISO 17025:2005 Araua. Saiakuntza eta kalibrazio laborategien gaitasunari buruzko baldintza orokorrak.
13. Administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaileak. UNE-EN ISO 17020 Araua. Ikuskaritza-entitateen gaitasun teknikorako baldintza orokorrak. Hondakin-uren isurketak ikuskatzeko protokoloa, Administrazio Hidraulikoaren Erakunde Laguntzaileentzat.
14. Hiriko hondakin-urak tratatzea. Hiriko hondakin-uren isurketaren ondoriozko kutsadura puntuala. Kutsadura mota horri aurrea hartzeko neurriak. Eremu sentikorrek izendatzea. Administrazio publiko ezberdinen eskumenak.
15. Arazketa-tratamendu nagusiak. Hiriko hondakin-urak arazteko estazioen diseinua eta ustiatzea. Araztutako urak berrerabiltzea. Saneamendu-sistemen gainezkatzea eurretan.
16. Uren kalitateari loturiko parametro fisiko, kimiko eta mikrobiologikoak. In situ zehaztapen ur naturaletan eta hondakin-uretan. Landa-laneko taldeak eta aztertutako parametroak. Isurketen emaria neurtzea. Ingurumen-matrizeen laginak hartzeko prozedurak. Lagin motak. Kontserbazio eta garraiorako teknikak. Zainketa-katea. Estandarizazioa.
17. Jabari publiko hidraulikora eta itsaso eta lehorren arteko jabarira egindako isurketak kontrolatzeko instrumentuak eta prozedurak. Kontrol jarraitua eta denbora errealean. Isurketak kontrolatzeko sistema berriak.
18. Urak nekazaritzan erabilitako nitratoen ondoriozko kutsaduraren aurka babestea. Nekazal-jarduera jatorri duen kutsadura lausoak: ongarriak eta plagizidak. Kutsadura lausoari aurrea hartzeko neurriak. Kaltetutako urak zehaztea. Nitratoen ondoriozko kutsadurarekiko sentikorrek diren eremuak izendatzea. Ekintza-programak. Nitratoen ondoriozko kutsaduraren egoera kontrolatzea. Uren eutrofizazioa. Administrazio publiko ezberdinen eskumenak.
19. Lurpeko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babestea.
20. Lehentasunezko substantzien ondoriozko azaleko uren kutsaduraren aurka borrokatzeko estrategiak. Substantzia arriskutsuak.
21. Bainatzeko uraren kalitatearen kudeaketari buruzko legedia. Horren arabera betebeharrak. Administrazio publiko ezberdinen eskumenak.
22. Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko legedia.
23. Ingurugiro-ebaluazioa. Printzipioak. Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko esparru juridikoa: plan eta programa publikoen ingurugiro-ebaluazio estrategikoa. 21/2013, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa. Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa.

24. Ingurumena ur-bitartekoen ustiatzean. Ur-masen eutrofizazioa. Fauna-aberastasuna. Babes-irudiak. Biodibertsitate-indizeak. Emari ekologikoak. Isurketen ondoriozko eraginak. Neurri zuzentzaileak. Kutsadura murrizteko programazioa.

25. Zigortzeko ahalmena jabari publiko hidraulikora eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora egindako isurketei dagokienez. Arau-hausteak eta zehapenak. Lehengoratzeko betebeharra eta kalteak baloratzea. Eskumenen banatzea zigortzeko ahalmenari dagokionez.

26. Hirigintza eta ura. Administrazio hidraulikoaren txostenak lurraldea antolatzeko eta hirigintza-planeamenduko instrumentuentzat.

27. EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

28. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak.

29. EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.

30. Hezeguneak. EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala. Hezeguneak mugatzea. Hezeguneak babesteko eta kontserbatzeko mekanismoak.

31. Sektore publikoko kontratuak. Kontzeptu eta motak. Osagaiak eta esleipen-prozedurak. Betetzea. Prezioak berrikustea eta kontratuaren beste aldaketa batzuk. Administrazio-kontratuak ez betetzea.

32. Ingurumena kudeatzeko instrumentuak. Ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioari (EMAS) buruzko Europako Erregelamendua. Kontzeptua. Xedea. Aplikazio-eremua. Abantaila nagusiak. Ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioaren eta ISOren (Estandarizatorako Nazioarteko Erakundea) arteko harremana. Ekolabel sistemak ISO arauen arabera. Europar Batasunaren label ekologikoa.

33. Informazioaren teknologiak, informazio geografikoko sistemak eta ur-masen egoera ekologiko egokia babesteko duten aplikazioak.

GAI-ZERRENDA OSAGARRIAK - 2. ERANSKINA

34. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea

35. Laneko Arriskuen Prebentzioaren azaroaren 8ko 31/1995 Legeak

36. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrikoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

37. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legea, azaroaren 24koa.

38. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa

Gai zerrendak 2019ko ekainaren 19an eguneratu dira